

Bizkaiko Foru Aldundiaren ____/2018 FORU DEKRETUA, ekainaren 12koa, Bizkaiko Foru Aldundiaren 2009ko otsailaren 24ko 30/2009 Foru Dekretua aldatzen duena. Azken Dekretu hori egoitzen foru zerbitzu publikoan egonaldi iraunkorragatiko prezio publikoa aplikatzeari eta horretarako arauak ezartzeari buruzkoa da.

Bizkaiko Foru Aldundiaren otsailaren 24ko 30/2009 Foru Dekretuak –egoitzen foru zerbitzu publikoan egonaldi iraunkorragatiko prezio publikoa aplikatzeari eta horretarako arauak ezartzeari buruzkoa—, 4. artikulua 1. zenbakiko bigarren paragrafoan. hau xedatzen du:

«Dena den, aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera kalkulaturako prezio publikoa zerbitzuaren eguneko kostuaren % 90etik gorakoa bada, erabiltzaileak zerbitzuaren eguneko kostuaren % 90 ordainduko du».

Kontuan hartuta egoitzen foru zerbitzua entitate eta sozietate desberdinek ematen dutela eta haien errealitatea ez dela bat bakarra, beharrezkoa izan da egoitzen foru zerbitzurako eguneko kostu bat baino gehiago ezartzea.

Mendekotasun-egoeran dauden egoitzen foru

DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia ____/2018, de 12 de junio, por el que se modifica el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 30/2009, de 24 de febrero, por el que se acuerda la aplicación y se regula el precio público por la prestación del servicio público foral de residencias en estancia permanente

El Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 30/2009, de 24 de febrero, por el que se acuerda la aplicación y se regula el precio público por la prestación del servicio público foral de residencias para personas mayores establece en su artículo 4.1. párrafo segundo:

“En cualquier caso, si este precio público, calculado conforme a lo dispuesto en el párrafo anterior, supera el 90% del coste diario del servicio, la aportación de la persona usuaria será igual al 90% del coste diario del servicio.”

La existencia de distintas entidades y/o empresas prestadoras del servicio foral residencial y las distintas realidades de las mismas ha traído como consecuencia la necesidad de fijar distintos costes diarios del servicio foral residencial.

Con el fin de garantizar el principio de igualdad



sarean ingresatutako pertsona guztien arteko berdintasun-printzipioa bermatzeko, eta Aldundiaren eta zerbitzua ematen duten entitate eta sozietateen artean dagoen harreman juridikoa dena dela, beharrekotzat jotzen da erreferentzia-kostu bakarra ezartzea, erabiltzaileek gehienez ordainduko duten prezio publikoa kalkulatu ahal izateko.

entre todas las personas ingresadas en la red foral residencial para personas en situación de dependencia, al margen del tipo de relación jurídica existente entre la Diputación y las distintas empresas y/o entidades prestadoras del servicio, se produce la necesidad de fijar un único coste de referencia a los efectos de poder calcular el precio público máximo a satisfacer por las personas usuarias.

Beraz, 30/2009 Foru Dekretuaren 4. artikulua 1. zenbakiko bigarren paragrafoan xedatutakoa betetzeko, 82,21 euroan ezartzen da zerbitzuaren eguneko kostua 2018. urterako, 85,77 euroan 2019. urterako eta 89,71 euroan 2020. urterako.

En base a lo anterior, a los efectos previstos en el artículo 4.1. párrafo segundo del Decreto Foral 30/2009 el coste diario del servicio residencial se fija en 82,21 euros para el año 2018, 85,77 euros para el año 2019 y 89,71 euros para el año 2020.

Foru-dekretu hau izapidetzeko, halakoetan dagokion kontrol ekonomikoari buruzko txostena egin da, eta kontuan hartu da zer ezartzen den bi lege-testu hauetan: Euskal Autonomia Erkidegoko 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 141/2013 Foru Dekretua, azaroaren 19koa, generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteari buruzkoa.

Para la tramitación de este Decreto Foral se ha emitido el correspondiente informe de control económico y se ha observado lo dispuesto en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres de la Comunidad Autónoma del País Vasco y en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 141/2013, de 19 de noviembre, sobre la realización de la evaluación previa de impacto en función del género.

Gainera, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2017ko urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuak jasotzen dituen izapide guztiak bete dira.

Asimismo se han observado los trámites previstos en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 2/2017, de 17 de enero, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia.



Azaldutakoa dela bide, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak proposatuta eta Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluek 2018ko ekainaren 12ko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau,

Por lo expuesto, a propuesta del diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno de esta Diputación Foral, en su reunión del día 12 de junio de 2018,

XEDATZEN DUT:

DISPONGO:

Artikulu bakarra. *Egoitzen foru zerbitzu publikoan egonaldi iraunkorragatiko prezio publikoa aplikatzeari eta horretarako arauak ezartzeari buruzko Bizkaiko Foru Aldundiaren 2009ko abenduaren 24ko 30/2009 Foru Dekretua aldatzea.*

Artículo Único. *Modificación del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 30/2009, de 24 de febrero, por el que se acuerda la aplicación y se regula el precio público por la prestación del servicio público foral de residencias en estancia permanente.*

Aldatu egin da otsailaren 24ko 30/2009 Foru Dekretuaren 4. artikulua (egoitzen foru zerbitzu publikoan egonaldi iraunkorragatiko prezio publikoa aplikatzeari eta horretarako arauak ezartzeari buruzkoa da dekretu hori), eta honela geratzen da idatzita:

Se modifica el artículo 4 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 30/2009, de 24 de febrero, por el que se acuerda la aplicación y se regula el precio público por la prestación del servicio público foral de residencias en estancia permanente, que queda redactado en los siguientes términos:

“4. artikulua. Prezio publikoaren zenbatekoa

“Artículo 4.- Cuantía del precio público.

1. Ordaindu behar duenak urte natural bakoitzean egunero zer prezio publiko ordaindu behar duen kalkulatzeko, % 90eko portzentaje bat aplikatuko zaio pertsona horrek duen eguneko ahalmen ekonomikoari,

1. El precio público diario exigible a la persona obligada al pago se calculará, para cada año natural, aplicando un porcentaje del 90% sobre su capacidad económica personal diaria o, en su caso, a la capacidad económica per cápita de la



edo bestela, elkarbizitza-unitatean pertsona bakoitzak duen ahalmen ekonomikoari. Foru dekretu honen 6. artikuluan definitzen da unitate hori.

unidad de convivencia definida en el artículo 6 de este Decreto Foral.

Dena den, aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera kalkulaturako prezio publikoa zerbitzuaren eguneko kostuaren % 90etik gorakoa bada, erabiltzaileak zerbitzuaren eguneko kostuaren % 90 ordainduko du.

En cualquier caso, si este precio público, calculado conforme a lo dispuesto en el párrafo anterior, superara el 90% del coste diario del servicio, la aportación de la persona usuaria será igual al 90% del coste diario del servicio.

2 Aurreko paragrafoan xedatutakoa betetzeko, zerbitzuaren eguneko kostua ondorengo zenbatekoetan ezartzen da :

2. A los efectos previstos en el párrafo anterior el coste diario del servicio queda fijado en las siguientes cuantías:

Urtea/Año	Zerbitzuaren eguneko kostua /Coste diario del servicio (€)
2018	82,21
2019	85,77
2020	89,71

3. Pertsona batek egunean daukan ahalmen ekonomikoa edo, hala dagokionean, elkarbizitza-unitatean pertsona bakoitzak egunean duen ahalmen ekonomikoa (kasu horretan ere zenbat euro egunean) errenta eta ondarearen arabera zehaztuko da, eta honela kalkulatu da: urteko diru-sarreraren zenbateko osoa gehi ondare higigarri eta higiezinaren balioaren % 5, zati hirurehun eta hirurogeita bost (365) egun.

3. La capacidad económica personal diaria o, en su caso, la capacidad económica per cápita diaria de la unidad de convivencia calculada también en euros/día, se determinará en función de la renta y del patrimonio y será igual al importe total de los ingresos anuales, más un 5% del valor del patrimonio, mobiliario e inmobiliario, dividido entre trescientos sesenta y cinco (365) días.



Honako hau izango da errentak zehazteko kontuan hartuko den aldia: gertaera eragin duen egitatea jazo denean eskuragarri dagoen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azken autolikidazioaren edo ezagutzen den azken pentsioaren urteari dagokiona.

4. Artikulu honetan ezarritako ondorioetarako, hurrengo errentak eta diru-sarrerak hartuko dira kontuan: ordaindu behar duen pertsonak titular gisa dituen ondasunak eta eskubideak, elkarbizitza-unitateko kideek titular gisa dituztenak, lanetik eta kapitaletik eratorritakoak, eta haien ordezeko beste batzuk.

Lan errentatzat joko dira norberaren kontura edo inoren kontura jarduerak egiteagatik lortutako ordainsariak, diruzkoak zein gauzazkoak.

Lan errentekin parekatuko dira gizarte aurreikuspenen arloko edozein araubidek onartutako prestazioak, baliabide publikoekin edo beste inoren baliabideekin finantzatzen badira.

Halaber, lan errenten ordezeko sarreratzat joko dira funts publiko edo pribatuen kargura jasotzen diren haien osagarri guztiak.

Edonola ere, errenta horiei dagokienez, haien zenbateko garbia hartuko da, urtean jasotako ordainsari guztiak sartuta.

El periodo a computar en la determinación de las rentas será el correspondiente al año de la última autoliquidación del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas disponible o pensión conocida a la fecha del hecho causante.

4. A los efectos establecidos en este artículo, se considerarán rentas o ingresos computables, los bienes y derechos de los que sea titular la persona obligada al pago y, en su caso, de los que sean titulares los miembros de la unidad de convivencia, derivados tanto del trabajo como del capital, así como cualesquiera otros sustitutivos de aquéllos

Se entenderá por rentas de trabajo las retribuciones, tanto dinerarias como en especie, derivadas del ejercicio de actividades por cuenta propia o ajena.

Se equiparán a rentas de trabajo, las prestaciones reconocidas por cualquiera de los regímenes de previsión social, financiados con cargo a recursos públicos o ajenos.

Asimismo, tendrán la consideración de ingresos sustitutivos de las rentas de trabajo, cualesquiera otras percepciones supletorias de éstas, a cargo de fondos públicos o privados.

En todo caso, las citadas rentas serán consideradas en su importe neto y por el total de las pagas anuales percibidas.



Ondare-elementuetatik, ondasun zein eskubideetatik, datozen sarrera guztiak joko dira kapital-errentatzat, eta elementu horiek euren benetako etekinen arabera hartuko dira kontuan.

Edonola ere, erabiltzaileak jaso edo gozatzeko eskubidea dituen errentak eta edozein sarrera mota ere kontuan hartuko dira.

5. Erabiltzailearen ondare pertsonala da eduki ekonomikodun ondasun-eskubideen multzoa, baina kendu egingo dira ondasun-eskubideon balioa gutxitzen duten zamak eta kargak zein erabiltzaileak dituen zor eta betebeharrak pertsonalak. Erregela honen aplikazioak inolaz ere ezin du ekarri emaitza negatibo bat.

Ohiko etxebizitza ez da sartuko balorazio horretan betiere, etekinen bat lortzea dakarren edo ekar dezakeen eskualdaketa, alokairu edo antzeko edozein negozio juridikoren ondorioz, ohiko etxebizitza izateari uzten ez badio. Halaber, ez dira kengarriak izango etxebizitza horri dagozkion gastuak, kargak eta zamak.

6. Edonola ere, erabiltzaileari nahierara erabiltzeko gutxieneko kopuru bat bermatu behar zaio: 1.200 euro urtean.

7. Urteko gasturako ahalmena edo, hala dagokionean, elkarbizitza-unitatean pertsona bakoitzak duen urteko gasturako

Como rentas de capital se computarán la totalidad de los ingresos que provengan de elementos patrimoniales, tanto de bienes como de derechos, considerándose según sus rendimientos efectivos.

En todo caso, se computarán las rentas o ingresos de cualquier naturaleza que se tenga derecho a percibir o disfrutar.

5. Se considera patrimonio personal de la persona usuaria el conjunto de bienes y derechos de contenido económico, con deducción de las cargas y gravámenes que disminuyan su valor, así como de las deudas y obligaciones personales de las que deba responder. En ningún caso, por aplicación de esta regla podrá obtenerse un resultado negativo.

La vivienda habitual quedará excluida de la citada valoración siempre que no pierda su carácter de vivienda habitual como consecuencia de su transmisión, alquiler o cualquier otro negocio jurídico similar que suponga o pueda suponer la obtención de algún tipo de rendimiento. Asimismo, no se considerarán deducibles los gastos, cargas y gravámenes que recaigan sobre dicha vivienda habitual.

6. En cualquier caso, se garantizará a la persona usuaria una cantidad mínima de libre disposición igual a 1.200 euros anuales.

7. A las personas usuarias con una capacidad de gasto personal anual o, en su caso, con una capacidad de gasto per cápita anual de la



ahalmena aurreko zenbakian aipatu den nahierara erabiltzeko gutxieneko kopuruaren bestekoa edo txikiagoa duten erabiltzaileek ez dute prezio publikorik ordaindu beharko.

8. Hala ere, erabiltzaileak ondare higigarria, likidoa edo likidagarria badu egoitzan sartzeko eskabidea egiten duenean (berea edo elkarbizitza-unitateko kide bakoitzarena) eta ondare hori 3.000 eurotik gorakoa bada, zerbitzuaren kostuaren % 90 ordainduko du harik eta ondarea 3.000 eurotan gelditu arte. Horrela gertatzen denean, artikulua honetan ezarritakoaren arabera kalkulatu zaion gasturako ahalmenari dagokion prezio publikoa ordainduko du hilero.

Gutxitze hori otsailaren 24ko 29/2009 Foru Dekretuaren 11. artikuluan ezarritakoaren arabera justifikatuta dagoenean baino ez da aplikatuko erregela hori. Foru dekretu horren bidez, besteren laguntza behar duten adinekoen egoitzen foru zerbitzu publikoa jasotzeko araubidea finkatu da eta zerbitzu horretako egonaldi iraunkorrerako baldintzak ezarri dira.

Atal honetan aipatutako ondare higigarria ez da kontuan hartuko pertsonaren ahalmen ekonomikoa kalkulatzeko haren ondareari buruz egiten den balorazio ekonomikorako (artikulu honen 2. zenbakian aipatzen da balorazio hori)."

unidad de convivencia, igual o inferior a la cantidad mínima de libre disposición señalada en el número precedente, no se les exigirá el pago del precio público.

8. No obstante, en el caso de que la persona usuaria disponga de un patrimonio mobiliario, líquido o liquidable a la fecha de la solicitud de ingreso, personal o per cápita de la unidad de convivencia, superior a 3.000 euros, abonará el 90% del coste del servicio hasta que dicho patrimonio quede reducido a la citada cifra de 3.000 euros; momento a partir del cual abonará mensualmente el precio público que le corresponda de acuerdo con su capacidad de gasto calculada según lo previsto en el presente artículo.

Esta regla únicamente resultará de aplicación en los supuestos en que dicho decremento se encuentre debidamente justificado en los términos previstos en el artículo 11 del Decreto Foral 29/2009, de 24 de febrero, que regula el régimen de acceso al servicio público foral de residencias para personas mayores dependientes y las condiciones de prestación del servicio en estancia permanente.

El patrimonio mobiliario referido en este apartado no se tendrá en cuenta para la valoración económica del patrimonio a efectos de calcular la capacidad económica personal referida en el apartado 2 de este artículo".



Azken xedapen bakarra. *Indarrean jartzea.*

Foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean, eta 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak

Disposición final única. *Entrada en vigor.*

El presente Decreto Foral entrará en vigor al día siguiente al de su publicación en el “Boletín Oficial de Bizkaia”, con efectos desde el 1 de enero de 2018.

Bilbon, 2018ko ekainaren 12an

En Bilbao, a 12 de junio de 2018

Ogasun eta Finantzen foru diputatua
El diputado foral de Hacienda y Finanzas

JOSÉ MARÍA IRUARRIZAGA ARTARAZ

Ahaldun Nagusia
El Diputado General

UNAI REMENTERIA MAIZ